

Azoka BERGARA tzen



Ekonomia Lokaleko lehenengo saioa

2014ko martxoaren 11a.



Azoka Bergaritzen ekimenaren barruan Azoka Biziberritzeko ildoaren lantaldeetako bat Ekonomia lokalarena da, eta Martxoak 11 izan genuen lan taldearen lehen saioa. Bertaratutakoak, izaera eta esparru desberdinetakoak, azoka indartu eta herriko ekonomia lagunduko duen ekimenen inguruan hausnartzen egon ginen. Azokako errealitatean sakondu, beste eredu batzuk, ekintza zehatzen inguruko ideiak, etabarren inguruan jardun ginen.

Eguna: Martxoak 11, 18:30-20:00

Tokia: Udaletxeko Pleno aretoa

▪ Nortzuk hartu dute parte bileran?

Hauek izan dira aurkezpenean parte hartu dutenak:

Izenak	
Aser Polvorosa	Pili Arin
Beñat Lete	Asier Latorre
Marije Unamuno	Maren Belastegi
Nagore Iraola	Andoni Larrañaga

▪ Saioan jasotako ekarpenak.

- Legeen inguruko ardura azaldu da. Gauzak legalki eta alegalki egiten dituztenen arteko konparazioa. Dendari eta eskulangintzan aritzen direnen arteko irain edo bidegabekeriarik ez sortzeko. Hemen osagarritasuna sustatzea litzatekeela onena aipatu da.
- Postu finkoen artean (azokako dendariak), astean irekitzen ez duenik badagoela eta, hurrengo esleipenetara begira, egunero irekiko duenari lehentasuna emateko araudia aldatzea.
- Halere, zabaltzen ez duten egunetan, beste ekimen batzuetarako postuak erabiltzeko negoziatzeko aukera zabaltzea komentatu da.

- Asteazkena identifikatu da azoka egun berri bat egiteko moduan. Lora saltzailea gerturaten da eta jende gehiago ibiltzen da azokan. Hemen beste ildoetako ekintzak txertatuz, ekonomia lokaleko hainbat ekimen ere bultzatu daitezke (artisansuak, jardueren erakusketak, ...)
- Azokako dendariak zozketak egiten dituzte erosleen artean. Hauek hilabete t'erdiro egiten dituzte, eta honelako ekintzak (marketing) lagungarriak izaten dira.
- Alde batetik espazioa erabiltzeko, eta bestetik herritarren artean azokara joateko ohitura handitzeko azoka bereziak edo noizbehinkakoak:
 - o Truke azoka edo bigarren eskuko azoka egitea ere proposatu da (liburuak, arropak, dekorazioko elementuak, ...). Edozein herritarrei irekia, beraien etxeko gauzak saltzeko. Igandea aipatu da egun aproposa bezala. Agian hasieran hilean behin
 - Eskoletako ikas bidaiakoak ere gai honetara gonbidatzea.
 - Bilduma zaleak ere gonbidatzea (filatelia, numismatika, pegatinak, txapak, egutegiak, kromoak, giltzatakoak ...)
 - o Salmentarekin batera, jarduera desberdinak erakusteko aukera aipatu da: egurra lantzen dutenak, zeramika, zestogintza, etab. (Elgetako ereduak: hilabetean behin + dieta)
 - Bergaran ere badaude beste talde batzuk: bolilloak, makrame, eskulanak, etab. Hauek, erakutsi edota truke/2.eskuko azokan parte hartu dezaketela aipatu da.
 - Diseinatzaileen egun bereziren bat
 - Miren Olazabalen lanen erakusketa (buruhandiak, pertsonaiak, ...)
 - Altzarien konpontzailearen bat
- Ekintza osagarriez azoka bizitzea aipatu da. Nahiz eta igandean egin, jendea bertaratu eta azoka ezagutarazteko aukera emango luke:
 - o Lehengo "berduri hall"aren antzera, non musika eta dantza egiten zen.
 - o Kafe Konpon hilabetean behin azokan egitea (15ero, behin San Joxepen, eta behin azokan)
- Hasiera baten ekintza edo talde guzti hauek batera jartzearena aipatu da, eta indarra hartu eta parte-hartzea areagotzen den heinean, gertutasunagatik/gaika banatzea.
- Merkatariak egiten dituzten "outlet" egunak, azokan ere kokatu daitezke?
- Adibide hauek, uda baino lehenago aktibatzea komenigarri ikusi da. Laborategi gisa, ondorengo hilabeteetarako oinarriak jartzeko.

- Goikaldean dagoen garbiketa denda bertan uzteko aukera egongo balitz, pareko espazio horren bezainbestekoa aisialdi gunetik kanpo laga eta bertan kafetegi bat jartzeko aukera aztertzea proposatu da.